Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
LAN HARREMAN ETA GIZARTE LANGINTZA FAKULTATEA
FACULTAD DE RELACIONES LABORALES Y TRABAJO SOCIAL



# Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua

## Ikasturtea: 2014/2015

## Tituluaren gaitasun zehatzei buruzko ikasketen gidaliburua

Ikasketa Planean adierazitakoa: **Enpresaren edo erakundearen Giza Baliabideen estrategiak behar bezala garatzea, kontrolatzea eta ebaluatzea (13. zk.).**

## ikastaroa: Tituluaren 13. gaitasun zehatzari buruzko ikasketen gidaliburua

1. mailan ez da garatzen.

## 2. ikastaroa: Tituluaren 13. gaitasun zehatzari buruzko ikasketen gidaliburua

2. mailan ez da garatzen.

## 3. ikastaroa: Tituluaren 13. gaitasun zehatzari buruzko ikasketen gidaliburua

3. mailan ez da garatzen.

# 4. ikastaroa: Tituluaren 13. gaitasun zehatzari buruzko ikasketen gidaliburua

## 1. MENDERATZE MAILA

Enpresaren edo erakundearen giza baliabideen estrategiak behar bezala garatzea, kontrolatzea eta ebaluatzea.

## 2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

### Enpresen gestioa III:

| ADIERAZLEAK | IKASKUNTZA EMAITZAK |
|---|---|
| | 1. Giza baliabideen funtzioaren arloak identifikatzen ditu (pertsonalaren administrazioa, lan harrenak, enplegua, giza baliabideen gestioa, giza baliabideen garapena, funtzio ekonomikoa, lan segurtasun eta osasuna), enpresan edo erakundean hartu beharreko erabaki estrategikoen argitara gestionatu behar direnak. |
| Gestio planaren barruan giza harremanen funtziorako jardun ildoak eta proiektuak ezartzen ditu. | 2. Jardun ildoak proposatzen ditu giza baliabideen funtzioaren arloetako bakoitzean, konpainiaren helburu eta estrategiekin loturik. |

**Berdintasunerako Planak eta Negoziazio Kolektiboa**

| ADIERAZLEAK | IKASKUNTZA EMAITZAK |
|---|---|
| Giza baliabideen estrategiak analizatzen ditu, arreta berezia jarrita pertsonalaren eta karrera profesionalari eskainita. | Enpresan tratu ezberdintasuna eragiten duten mekanismoak antzematen ditu. |
| | Zehaztu eta behar bezala interpretatzen ditu tratu berdintasunerako babes arauak eta jurisprudentzia. |
| | Ohiko estrategiak proposatzen ditu tratu berdintasuna sustatzeko. |
| | Berdintasunerako neurri legezko eta ohikoak lotzen ditu berdintasuna bera betetzeko mekanismoekin. |

**Gizarte eta lan auditoria:**

| ADIERAZLEAK | IKASKUNTZA EMAITZAK |
|---|---|
| Behar bezala erantzuten ditu egiten zaizkion galderak, bai ahoz nola idatziz. | Enpresak dituen harreman ezberdinen subjektuak eta hauei dagozkien eskubide eta betebeharrak identifikatzen ditu. |
| | Enpresa edo erakundean giza baliabideen garapen eta kontrolari dagozkien estrategiak planteatzen ditu. |
| | Hautazko bideak proposatzen ditu enpresan izaten diren egoera pertsonal eta lanekoen hobe beharrez. |

### 3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK.

**Enpresa gestioa III, Berdintasunerako Planak eta Negoziazio Kolektiboa, Gizarte eta Lan Auditoria**

### 4. ZEREGINAK:

**Enpresen gestioa III:**

Irakasgaia kasu erreal baterako plan estrategikoaren proiektua eginez garatzen da, honako hauek egin eta balioetsita: Lan pertsonal idatzia, jorratutako eduki batzuen inguruan; edukiei buruzko jakintzak; azken txosten idatzia, talde lana.

**Berdintasunerako Planak eta Negoziazio Kolektiboa**

Enpresa planek pertsonalaren hautaketa eta karrera profesionala nola jasotzen dituzten aztertu.

**Gizarte eta lan auditoria:**

Ahoz edo idatziz irakasleak egindako galderak erantzun.

## 5. EBALUAZIO SISTEMA

### Enpresen gestioa III:

Adierazlea osotasunean balioetsiko da, irakasgai osoan % 5eko pisua duelarik. Honez gain, gaitasun hau ikasgelatik kanpo egindako lan pertsonalaz, jakintza egiaztatzeko probaz; talde lanerako gaitasunaz, ahozko aurkezpenerako gaitasunaz eta idatzizko aurkezpenerako gaitasunaz ebaluatuko da. Gaitasun hau beste gaitasun zabalago baten barruan kokatzen da, hau da **Estrategiaren kontzeptua eta zuzendaritza estrategikorako teknika ulertu. % 5eko pisu orokorra du.**

### Berdintasunerako Planak eta Negoziazio Kolektiboa

Deskribatutako adierazlea ebaluatzen da. Adierazle honek % 5eko pisua du irakasgai osoan.

### Gizarte eta lan auditoria:

Adierazlea osotasunean balioetsiko da, irakasgai osoan duen pisu globala % 30ekoa dela kontutan hartuta.